

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

825

AGINDUA, 2014ko otsailaren 11koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena; honen bidez, Erleen Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Plana onartzen da.

Erle-ustategiek onura handia ekartzen diote naturari oro har eta nekazaritzari bereziki: landareak polinizatzeko prozesuan laguntzen dute erleek, bai eta emankortasun txikia duten lurretan edo lur antzuetan berez sortzen diren lore-baliabideak aprobetxatzen ere. Beraz, egun erle helduei zein umesabiari eragiten dieten gaixotasunei dagokienez oso garrantzitsua da erlauntzak osasuntsu edukitzea.

Erlezaintzaren osasun-alorrari eragiten dion araudi oso bat dago. Lehenik eta behin, aipatzekoa da Europako Kontseiluaren uztailaren 13ko 92/62/EE Zuzentaraua, erle-erkidegoan egiten diren trukeetan eta inportazioetan aplikatzekoak diren osasun-poliziako baldintzak ezartzen dituen. Estatu-mailan, honako hauek arautzen dute gaia: apirilaren 24ko 8/2003 Legea, abere-osasunari buruzkoa; eta, erleen gaixotasunei aurre egin eta kontrolatzeko estatu mailako programa bat ezartzen eta arautzen duen maiatzaren 19ko 608/2006 Errege Dekretua. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek argitaratu dira: abenduaren 23ko 17/2008 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa; eta, otsailaren 10eko 33/2004 Dekretua, erlezaintza antolatzeari buruzkoa.

Otsailaren 10eko 33/2004 Dekretuak erle-ustategiek bete beharreko oinarritzko baldintzak arautzen ditu, eta dekretu horren 11.2 artikulua arabera, erleen gaixotasunei aurre egiteko lan koordinatuaren barnean, erleen osasun-plan bat prestatu eta koordinatuko da. Plana gain-begiratzeko ardura foru-aldundiek izango dute, bakoitzak dagokion lurraldean. Osasun-plan hori Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren agindu bidez garatuko da, eta, gutxienez, varroasiari eta loke amerikarrari aurre egiteko osoko plan bat jasoko du; horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan erleen-osasun egoeraren arabera garatu beharrezkotzat jotzen diren planak ere jasoko ditu.

Agindu honekin manu hori betetzen da, eta Erleen Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Plana onartzen da. Plan hau Foru Aldundiekin koordinatuta egin da.

Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Erleen Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Plana onartzea.

1.– Erleen Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Plana onartzen da, zein agindu honen eranskinean jasota baitago.

2.– Osasun Planaren zehaztapenak nahitaez bete beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden erle-ustiapenetako titularrek, aplikatzekoak zaizkien gainerako osasun-arauak alde batera utzi gabe.

2. artikulua.– Zehapen-erregimena.

1.– Agindutakoa bete ezean, abere-osasunari buruzko apirilaren 24ko 8/2003 Legean aurreikusitako arau-hauste eta zehapen erregimena aplikatuko da, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 112. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Foru Aldundietako organo eskudunek izango dute zehapen-ahalmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

3.– Arau-haustearen larritasunaren arabera, aplikatzekoa den legeriari jarraituz, dena delako jardura aldi baterako eten, bertan behera utzi edo baimena kendu egin ahal izango da, edo, enpresa, instalazioa, establezimendua, ustiategia edo industria itxi ere bai.

4.– Xedapen honetan ezarritakoak ez du baztertzen osasun publikoaren aurkako delituengatik izan daitekeen erantzukizun kriminala.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen eranskina aldatu ahalko da Eusko Jaurlaritzako Abeltzaintza gaietan eskumena duen zuzendaritzaren titularraren ebazpen bidez, betiere agindu honen eranskinaren 7. paragrafoan aipatzen den talde teknikoak hala proposatzen badu.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 11.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA

ERLEEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OSASUN PLANA**I.- ZATI OROKORRA****Aurkibidea**

-
- 1.– Erleen Osasun Planaren helburuak.
 - 2.– Aplikatu beharreko araudia.
 - 3.– Administrazio eta entitate eskudunak.
 - 4.– Erleen gaixotasun kontrolatuak.
 - 5.– Erleen osasuna zaintzeko sistema.
 - 6.– Diagnostiko-laboretegiak.
 - 7.– Erlezaintzako teknikarien taldea.
 - 8.– Erlezaintzako prestakuntza.

1.– Erleen Osasun Planaren helburua

Planaren helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko erle-ustategietako erlauntzak osasun onean edukitzea da, gaur egun erle helduei zein umesabiari eragiten dieten gaixotasunei dagokienean.

2.– Aplikatu beharreko araudia

Aplikatu beharreko gainerako arauak alde batera utzi gabe, EOP Erleen Osasun Planean honako arau espezifiko hauek aplikatuko dira:

- 33/2004 Dekretua, otsailaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan erlezaintza antolatzeari buruzkoa (2004ko martxoaren 5eko EHAA, 45. zk.).
- 608/2006 Errege Dekretua, maiatzaren 19koa; horren bidez, erleen gaixotasunak borrokatzeko eta kontrolatzeko programa nazionala ezarri eta arautzen da (2006ko ekainaren 2ko BOE, 131. zk.).
- ARM/831/2009 Agindua, martxoaren 27koa; horren bidez, agertuz gero nahitaez adierazi beharreko animalien gaixotasunen zerrenda ezartzen da, eta nola jakinarazi arautzen da.
- 1628/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako zerrenda eta katalogoa arautzen duena.
- 8/2003 Legea, apirilaren 24koa, animalien osasunarena.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.

3.– Administrazio eta entitate eskudunak

Erleen Osasun Plana garatzeko eta aplikatzeko eskumenak Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako abeltzaintzaren arloko zerbitzu arduradunek izango dituzte, bakoitzak bere eskumen-eremuan.

Batetik, foru-aldundietako abeltzaintzako zerbitzu arduradunen esku egongo da bakoitzari dagokion lurraldean plana gauzatzea, osasun-kontrola eta epidemiologia-zaintza egitea. Plana garatzeko eta dagokion lurraldean aplikatzeko, foru-aldundietako zerbitzu arduradunek harreman- lankidetza- eta koordinazio-sistemak ezarriko dituzte dagozkien erlezain-elkarteekin, lanbide-erakundeekin eta albaitaritza-arloko erakundeekin.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako abeltzaintza-arloetako sail eskudunaren zerbitzu arduradunen esku egongo da gainerako autonomia erkidegoetako, Estatuko eta Europako Batzordeko agintarien aurrean koordinazio- eta ordezkaritza-lanak egitea.

Azkenik, koordinazio-organo gisa Erlezaintzako Talde Teknikoa sortzen da, zeinen eginkizunak eta partaideak ondoren zehaztuko baitiren, plan honen beste atal batean.

4.– Erleen Osasun Planean jasotako gaixotasunak

Edozein animalia-espezie bezala, erleak ere hainbat agente patogenoren eraginaren mende daude: hala nola, birusak, bakteriak, onddoak eta parasitoak. Aldeko egoera dutenean, ez dute oztoporik izaten erlauntzean bizkor hedatzeko.

Agerikoak ez diren infekzioetan egon ohi dira agente horiek, eta zaila izaten da antzematea. Hala ere, erlezaintzako ohitura txarrak eta erlauntzak ahultzen dituzten faktoreak izaten dira arazo horien eragile: elikagairik eza, ingurune-baldintza kaltegarriak, etab.

Erleei eragiten dieten gaixotasun nagusiak martxoaren 27ko ARM/831/2009 Aginduan daude jasota; agindu horren bidez, nahitaez adierazi behar diren animalien gaixotasunen zerrenda ezartzen da, eta nola jakinarazi arautzen da.

A) Europar Batasunean nahitaez adierazi beharreko gaixotasunak, honako hauen arabera: Batzordearen 2008ko uztailaren 30eko 2008/650/EE Erabakia, Kontseiluaren 2006ko urriaren 24ko 2006/88/EE Zuzentaraua eta Animalien Osasunaren Munduko Erakundea (OIE)

- Tropilaelapsosia (*Tropilaelaps* spp).
- Aethinosia (erlauntzeko kakalardo txikia - *Aethina tumida*).

B) Animalien Osasunaren Munduko Erakundearen zerrenda bakarrean dauden beste gaixotasun batzuk. Ez daude eranskin honen A atalean, baina horien berri emateko betebeharra dago, 3., 4. eta 5. artikuluetan xedatu bezala.

- Varroasia.
- Loke amerikarra eta loke europarra.
- Erleen nosemosia.
- Erleen akarapisosia.

Beste gaixotasun batzuk ere badaude: birosiek erle helduei eta umesabiari eragiten diete, eta Varroa akaroak eramaten duen birus batek sorrarazten ditu; eta askosferosia edo mikosia *Ascosphaera apis* onddoak sorrarazten du, umesabiari eragiten dio, eta batzuetan galera handiak ekar ditzake. Hori dela eta, horiek ere EOPn sartuko dira.

Bestalde, erleen etsaien artean, *Aethina tumida* kakalardoa eta *Tropilaelaps* sp. akaroa aipa ditzakegu. Horiek A zerrendan aipatzen dira, eta oraingoz Europan ez dira agertu; beraz, zaintza aktiboko plan batean sartuko dira. Halaber, *Vespa velutina* liztor asiarra espezie exotiko inbaditzailea da, duela gutxi sartu da Europan, eta hondamen handiak eragiten ditu erlategian. Liztor hori Indiako iparraldekoa da jatorriz, gaur egun Frantziako hego-mendebalde osoan dago hedatuta, eta Nafarroan nahiz EAEn aurkitu da, beste erkidego batzuetan bezala.

Erleen osasunean eragina izan dezaketen landare-osasunerako produktuen hondakinak ere kontuan izango dira, dela argizarian daudelako (akarizidetatik etorrta) edo dela polen-erreserbetan daudelako (nekazaritzatik etorrta).

5.– Erleen osasuna zaintzeko sistema

Lurralde historiko bakoitzean, etengabeko zaintza aktiboko zerbitzu bat egongo da, foru-aldundietako abeltzaintza-zerbitzuen mendekoa. Zerbitzu horren bitartez, erleen gaixotasunen hedadura eta denboran zehar duten bilakaera ezagutu ahal izango da, osasun-profilaxirako, albaitaritza-kontrolerako eta gaixotasuna errotik kentzeko neurriak berehala hartu ahal izateko, hori posible denean. Diagnostikatutako patologiaren arabera ezarriko dira neurri horiek.

6.– Diagnostiko-laborategiak

Diagnostikoak eta analisiak egiteko zereginak, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira, NEIKER laborategian (Animalien Osasun Saila, Derio). Lurraldeka, foru-aldundien menpeko tokian tokiko abere-laborategietan egingo dira:

- Eskalmendiko Abere Laborategian (Araba)
- Derioko Abere Laborategian (Bizkaia), eta
- Fraisoroko Abere Laborategian (Gipuzkoa)

Estatu mailan, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren mende dagoen Algeteko laborategia da erleen osasunerako erreferentziako laborategia, eta, Europa mailan, berriz, EBko Batzordearen 2011ko otsailaren 2ko 87/2011 Erregelamenduaren arabera, erleen osasunerako EBko erreferentziako laborategia «Agence Nationale de Sécurité Sanitaire de l'alimentation, de l'environnement et du travail» da (Laboratoire de Sophia-Antipolis, Les Templiers, 105 route des Chappes, BP 111, 06902 Sophia-Antipolis, Frantzia).

Azkenik, diagnostiko-beharrei erantzunez, lankidetzan jardun ahal izango da beste laborategi batzuekin, bai estatukoekin eta bai Europakoekin.

7.– Erlezaintzako teknikarien taldea

Euskal Autonomia Erkidegoan EOP ezartzean egingo diren ekintzak aztertzeko eta programatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan erlezaintzaren arloan aritzeko teknikarien lantaldea eratu da; foru-aldundietako abeltzaintza-zerbitzuetako teknikariek, Eusko Jaurlaritzak eta NEIKER erreferentziako laborategiak osatzen dute.

Analisi teknikoaren gaia dela-eta elkartzea komeni denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Erlezaintzako Teknikarien Taldeak erlezainen elkarrekin teknikaiei haiengana hurbiltzeko gonbitea egingo die.

Talde teknikoak funtzio espezifiko hauek izango ditu:

- Erleen Osasun programa garatzeko eta aplikatzeko zerbitzu eskudunen artean koordinazio-talde gisa aritzea.
- Osasun Programa ebaluatu eta Euskal Autonomia Erkidegoan duen garapenaren berri ematea.
- Eskumenak dituzten agenteen artean funtzionamendua koordinatua izan dadin ziurtatzeko neurriak proposatzea.
- Azterketa- eta aholkularitza-lanak egitea eta txostenak egiteko proposatzea.

Proposamenak eta jarduera-erabakiak Eusko Jurlaritzako eta Foru Aldundietako Abeltzaintzako zerbitzu-buruen mahaiak berretsi beharko ditu azkenean, edo, hala badagokio, Eusko Jurlaritzak eta Foru Aldundiek osatzen duten Nekazaritza Politikako Batzordeak.

8.– Erlezaintzako prestakuntza

Gaixotasunei modu eraginkorrean aurre egiteko, funtsezkoa da EOPn parte hartzen duten agenteen maila guztietan langile kualifikatuak egotea. Programaren urteko garapenean, prestakuntza garatzera bideratutako hezkuntza-jarduerak jaso behar dira, erlezainei zein ekintza-programetan sartutako teknikariei zuzendutakoak.

Prestakuntzako gaiak HAZI Fundazioarekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan landuko dira, eta, aukeraren eta beharren arabera, honakoak izango dira, besteak beste:

- Erreginak haztea.
- Oinarrizko erlezaintza.
- Udaberriko oinarrizko erlezaintza.
- Eztia ateratzea eta ontziratzea.
- Udazkeneko oinarrizko erlezaintza.

II.– ERLEEN OSASUN PLANAREN GARAPENA

1.– EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DAUDEN GAIXOTASUNEI AURRE EGITEKO OSASUN PLANA

Erleen ekoizpenari eragiten dien gaixotasun garrantzitsuenak kontrolatzeko eta horiei aurre egiteko jarduera-protokoloak ezartzea da Planaren zati honen helburu nagusia.

1.A.– VARROASIA

Garrantzia:

Varroasia da arazorik garrantzitsuen gaur egun erlezaintzan. Varroa nahiko bizkor ugaltzen den akaro bat da, eta ahuldu eta hondatu egiten ditu koloniak. Akaroek arrautzak jartzen dituzte erlazuloetan, eta batez ere erlaman-doan gelaxketan. Akaroak umesabiaren hemolinfaz elikatzen dira, eta hil egin dezakete. Operkulu berean akaro gehiegi badaude, parasitoek mutilatu egiten dute ninfa edo erlea: sabelaldea laburtua agertzen da, eta hegoak eta hankak atrofiatuak. Ateratzen ari diren erleei ere atxiki dakizkieke akaroak.

Helburuak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erlauntz guztietan, egonkorretan zein transhumanteetan, nahitaezko tratamendu-jarraibide batzuk ezartzea, horiei esker erlategietan Varroa-infestazioak maila txikietan mantendu ahal izateko eta akaro horren parasitazioak erlauntzaren ohiko funtzionamendua eta ezti-ekoizpena ez eragozteko.
- Erabilitako tratamenduen eraginkortasuna kontrolatzeko segimendua egiteko jarraibideak ezartzea.

Planaren garapena:

Lurralde historiko bakoitzean, varroari aurre egiteko nahitaezko tratamendu ofizialen kanpainak egingo dira, ekoizle ekologikoei ere zuzenduak eta produktu homologatuak erabiliz, betiere horien erabilera arautzen duen araudi espezifikoa errespetatuz. Sendagai bakoitza aplikatzeko aldiak ere finkatuko dira kanpainetan.

Planaren kudeaketa:

Varroa kontrolatzeko kanpainak urtero antolatuko dituzte foru-aldundien abeltzaintza-zerbitzuek, lurralde historiko bakoitzeko erlezain-elkarteekin batera, eta erabiliko den produktua eta aplikatzeko datak zehaztuko dira.

Hori dela eta, Foru Aldundiek tratamenduen plana jakinaraziko die erlezainei, idatziz.

Varroari aurre egiteko aukeratutako produktuak lurralde historiko bakoitzeko erlezain-elkarteetan egongo dira eskuragarri, erlezainek hartzeko.

Tratamenduen kanpaina amaituta, programaren balorazioa egingo da, eta aurkitutako arazoak berrikusi egingo dira.

Finantziaketa:

Foru-aldundi bakoitzak bere finantzaketa-plana ezarriko du.

Zehatzeko neurriak:

Nahitaezko tratamendua egin ez duten erlategietan beharrezko zehatzeko neurriak hartuko dira.

1.B.– LOKE AMERIKARRA

Garrantzia:

Gaixotasun larria da, larbei eragiten die, eta *Paenibacillus larvae* bakteriak eragiten du. Erlauntzean umesabia dagoen urteko edozein sasoitan agertzen da gaixotasuna. Erleek, gaixotzen ez diren arren, erlauntz osoan hedatzen dituzte esporak. Beren iletxoetan eta ahoko organoetan garraiatzen dituzte esporak, eta kutsatu egiten dituzte erlauntzeko abaraskak, armazoiak eta hormak, eta ezta eta polena ere bai. Erle harrapatzaileek erlauntz batetik bestera zabaltzen dituzte esporak, eta erlezainak ere bai bere tresnekin. EAEko erlategietan dagoen gaixotasun bat da, eta jakinaraztea nahitaezkoa da.

Helburua: planaren xedea EAEko erlategietatik loke amerikarra kentzea da.

Planaren garapena:

Beren erlategian loke amerikarra dagoela susmatzen duten erlezainak harremanetan jarriko dira erlezain-elkar-tearekin edo dagokion lurralde historikoko abeltzaintza-zerbitzuarekin. Erlategia ikuskatu egingo da, umesabidun abaraskako laginak hartuko dira, eta EAEko erreferentziako laborategira bidaliko dira.

Laborategiko analisien emaitzak positiboak badira, gaixotasuna kontrolatzeko plan bat ezarriko da; funtsean, kaltetutako erlauntzak suntsitu egingo dira, eta neurri higieniko-sanitarioak eta maneu-neurriak hartuko dira. Izan ere, ez dago antibiotiko bidezko tratamendurik gaixotasun horri aurre egiteko. Erlauntzak kendu egingo dira, ume-sabi-koadroak suntsitu, eta kaxa hutsa desinfektatu.

Emaitza positibodun kasuen segimendua egingo da. Kaltetutako erlezainek prestakuntza egokia jasoko dute, neurri higieniko-sanitarioak zuzen ezartzeko, loke-agerraldia kontrolatzeko eta berriz agertzea ekiditeko. Erlategia negatibotzat jo arte egingo da segimendua.

Ez da baimenduko lokeak infektatutako erlauntzak mugitzea.

Planaren kudeaketa:

Foru-aldundien zerbitzuek gauzatuko dute plana, erlezain-elkar-teekin batera, eta erreferentziako laborategiaren diagnostikoak lagunduta.

Finantziarioa:

Lokeari aurre egiteko laguntzak lurralde historiko bakoitzean erabakiko dira.

Zehatzeko neurriak:

Gomendatutako jarraibideak betetzen ez diren erlategietan beharrezko zehatzeko neurriak hartuko dira.

1.C.– NOSEMOSIA

Garrantzia:

Nosema apis mikrosporidio bat da, erleen erdiko hesteko parasittoa da, eta beheakoa eragiten du. Prozesua aurreratuta dagoenean, erle bakoitzeko 30-50 milioi espora inguru egon daitezke. Infekzio-iturria erleek erlauntzean egiten dituzten gorozkietan dago. Arazoa arina bada, udako hiletan kolonia sendatu egiten da, erleek beren jarduera erlauntzetatik kanpo egiten dutelako. Hala ere, eguraldia aldekoa ez denean, adibidez uda euritsua eta freskoa denean, infekzioak iraun egiten du, eta hurrengo udaberrian arazoa agertzen da. Galerak oso handiak izaten dira ekoizpenean, eta korrelazio negatibo handia egoten da infekzioaren intentsitatearen eta ekoiztiko ezki kiloen artean.

Duela gutxi deskribatu den beste *Nosema*-espezie bat *Nosema ceranae* da, baina, *N. apisek* ez bezala, ez du sortzen beherako-arazorik. Erlauntzak hustearekin lotu da gaixotasun hori. Bi *Nosema*-espezie horiek antzeman dira Euskal Autonomia Erkidegoan.

Helburua:

EAEko erlategietan *Nosema* spp-ren agerraldiak eta ondorioak minimizatzea.

Planaren garapena:

Beren erlategian nosemosia dagoela susmatzen duten erlezainak harremanetan jarri beharko dira erlezain-elkar-tearekin edo dagokion lurralde historikoko abeltzaintza-zerbitzuarekin. Erlategia ikuskatu egingo da, kaltetutako erlauntzetako hildako erleen eta erle bizien laginak hartuko dira, eta EAEko erreferentziako laborategira bidaliko dira. Laborategiko analisisien emaitzak positiboak badira, gaixotasuna kontrolatzeko plan bat ezarriko da; funtsean, metodo higienikoak aplikatuko dira. Izan ere, ez dago tratamendurik.

Kaltetutako erlezainek prestakuntza egokia jasoko dute, neurri higieniko-sanitarioak zuzen ezartzeko, nosema-agerraldia kontrolatzeko eta berriz agertzea ekiditeko. Erlategian arazoa gainditu arte egingo da segimendua.

Planaren kudeaketa:

Lurralde historiko bakoitzean, foru-aldundien zerbitzuek gauzatuko dute plana, erlezain-elkarteekin batera, eta erreferentziako laborategiaren diagnostikoak lagunduta.

Finantziazioa:

Nosemosiari aurre egiteko laguntzak lurralde historiko bakoitzean erabakiko dira.

Zehatzeko neurriak:

Ez dago horrelakorik.

1.D.– AKARAPISOSIA**Garrantzia:**

Acarapis woodi akaroa erleen trakeetan egoten da, eta asfixia eta hegan egiteko zailtasuna eragiten dizkie. Erleak hegoak erauzita agertzen dira. Elikagaiez libratzeko zailtasuna izaten dute, eta horregatik sabelaldeak puztuta agertzen dira. Erleak itota hiltzen dira, trakeak buxatuta, akaroengatik berengatik eta haien jariakinengatik. Infestazio handiak ez dira ohikoak, eta, normalean, beste arrazoi batzuek gaixotutako edo ahuldutako erlauntzetan gertatzen dira akaro horren infestazioak. Ohikoagoa da infestazioak erle gazte gutxi daudenean aurrera egitea. Izan ere, horrela akaro migratzaile asko egoten dira ostalari izan daitekeen erle bakoitzean. Horrela, gaixotasunak aurrera egiten du umesabirik ez dagoenean eta bilketan beherakada gertatzen denean. Bi egoera horiek neguko hilabeteetan gertatzen dira.

Helburua:

EAEko erlategietan akarapisosiaren agerraldiak eta ondorioak minimizatzea.

Planaren garapena:

Beren erlategian akarapisosia dagoela susmatzen duten erlezainak harremanetan jarriko dira erlezain-elkar-tearekin edo dagokion lurralde historikoko abeltzaintza-zerbitzuarekin. Erlategia ikuskatu egingo da, kaltetutako erlauntzetako hildako erleen eta erle bizien laginak hartuko dira, eta EAEko erreferentziako laborategira bidaliko dira.

Laborategiko analisien emaitzak positiboak badira, gaixotasuna kontrolatzeko plan bat ezarriko da; funtsean, akaroak hiltzeko tratamendua ezarriko da, eta metodo higienikoak aplikatuko dira.

Kaltetutako erlezainek prestakuntza egokia jasoko dute neurri higieniko-sanitarioak zuzen ezartzeko, agerraldia kontrolatzeko eta berriz agertzea ekiditeko.

Planaren kudeaketa:

Lurralde historiko bakoitzean, foru-aldundien zerbitzuek gauzatuko dute plana, erlezain-elkarteekin batera, eta erreferentziako laborategiaren diagnostikoak lagunduta.

Finantziazioa:

Akarapisosiari aurre egiteko laguntzak lurralde historiko bakoitzean erabakiko dira.

Zehatzeko neurriak:

Ez dago horrelakorik.

1.E.– ASKOSFEROSIA

Garrantzia:

Ascosphaera apis onddoa gure inguruko ia erlauntz guztietan dago, eta gaixotasuna eragiten du erlauntz askotan. Onddoak umesabiari bakarrik eragiten dio; hori dela eta, umesabi igeltsatua ere esaten zaio. Faktore askotako gaixotasuna da, eta, beraz, onddoaz gain beste faktore batzuk behar dira gaitza izateko, esaterako, umesabia hoztea, umeltasuna, eta, batik bat, erlearen higie eza. Gaixotasuna aurreratuta duen erlauntza bideraezina da, eta kutsadura-iturri bihurtzen da gainerako erlauntzentzat.

Planaren garapena:

Beren erlategian askosferosia dagoela susmatzen duten erlezainak harremanetan jarriko dira erlezain-elkartearekin edo dagokion lurralde historikoko abeltzaintza-zerbitzuarekin.

Gaixotasuna kontrolatzeko plan bat ezarriko da; funtsean, metodo higienikoak eta manei-metodoak aplikatuko dira. Kaltetutako erlezainek prestakuntza egokia jasoko dute, neurri higieniko-sanitarioak zuzen ezartzeko, agerraldia kontrolatzeko eta berriz agertzea ekiditeko.

Planaren kudeaketa:

Lurralde historiko bakoitzean, foru-aldundien zerbitzuek gauzatuko dute plana, erlezain-elkarteekin batera, eta erreferentziako laborategiaren diagnostikoak lagunduta.

Finantziazioa

Lurralde historiko bakoitzean erabakiko da zer laguntza ezarriko diren askosferosiari aurre egiteko.

Zehatzeko neurriak:

Ez dago horrelakorik.

1.F.– BIROSIA

Garrantzia:

Erle helduei paralisia eragin diezaieketen birus batzuk daude (ABPV – Paralisi Akutuaren Birusa; CBPV – Paralisi Kronikoaren Birusa). Honako birus hauek ere erleei eta/edo haien umesabiei eragiten diete: DWV

hegoak deformatzen dituen birusa eta umesabi sacciformearen birusa. Varroa akaroak birus horietako batzuk kutsatzen ditu, eta frogatu da birus horiek eta Varroa-parasitazioa batzea hilgarria izan daitekeela erlauntzean.

Helburua:

EAEko erlategietan birosiaren agerraldiak eta ondorioak minimizatzea. EAEn ze birosis-mota dagoen eta erleen ekoizpenean ze eragin duten jakitea.

Planaren garapena:

Beren erlategian birosia dagoela susmatzen duten erlezainak harremanetan jarriko dira erlezain-elkartearekin edo dagokion lurralde historikoko abeltzaintza-zerbitzuarekin. Erlategia ikuskatuko da eta kaltetutako erlauntzetako erle bizen laginak hartuko dira; ondoren, EAEko erreferentziako laborategira bidaliko dira.

Ez dago berariazko tratamendurik birosiari aurre egiteko. Hala ere, Varroa sp. infestazioa kontrolatzen bada, birosien eragina ere murriztu egiten da. Laborategiko analisien emaitzak positiboak badira, gaixotasuna kontrolatzeko plan bat ezarriko da; funtsean, Varroari aurre egiteko tratamendua ezarriko da, eta metodo higienikoak aplikatuko dira.

Erleen gaixotasunak aktiboki zainduko direnez, gure erlauntzetan zein birus mota dauden aztertuko da.

Planaren kudeaketa:

Lurralde historiko bakoitzean, foru-aldundien zerbitzuek gauzatuko dute plana, erlezain-elkarteekin batera, eta erreferentziako laborategiaren diagnostikoak lagunduta.

Finantziaketa:

Lurralde historiko bakoitzean erabakiko da zer laguntza ezarriko diren birosiari aurre egiteko.

Zehatzeko neurriak:

Ez dago horrelakorik.

1.G.– LIZTOR ASIARRA**Garrantzia:**

Liztor asiarra (*Vespa velutina*) erleen eta beste intsektu-espezie batzuen harrapakaria da, eta arriskuan jartzen ditu, gainera, espezieen aniztasuna eta nekazaritzako ekoizpena (fruta-arbolak). Udaberrian liztorren zikloa hasten denean, erregina joaten da erlauntzetara elikagai bila (proteina), eta kumeei eramaten die, baina urtarok aurrera egiten duenean, gutxi gorabehera ekainetik aurrera, langileek egiten dute zeregina hori.

Liztor horiek erlauntzaren inguruan egoteak sortzen duen estresagatik, erleak ez dira erlauntzetik irteten. Horregatik, ezin izaten dute bildu negutia baldintza egokietan igarotzeko adina elikagai. Gainera, dentsitate-altase jakin batetik aurrera, liztorrak erlauntzean sartzen dira, erleak hiltzen dituzte, larbak irentsi eta eztia jaten dute. Ondorioz, erlauntzeko gainerako erleek utzi egiten dute erlauntza. Hori dela eta, erlezainak, udazkenean bere erlauntzetara joaten denean, oso hustuta aurkituko ditu.

Helburua:

Euskal Autonomia Erkidegoko erlategietan liztor asiarrari aurre egiteko kontrol-neurriak ezartzea.

Planaren garapena:

Funtsean, erlategien inguruan liztor kopurua murriztean datza kontrola. Orain arte, ez dago substantzia erakar-garri eraginkor eta selektiborik eta berariazko beitarik *V. velutina*rentzat, hura harrapatu ahal izateko. Udaberrian,

erreginek beren jarduerari ekiten diotenean erlategien inguruan tranpa komertzialak edota etxean egindakoak erabiltzea da beste aukera. Aldi berean, habiak ikusiz gero, erlezainek lurralde historiko bakoitzeko erakunde eskudunei jakinaraziko diete, eta horiek suntsitzeko ekintza egokiak abiaraziko dira.

Planaren kudeaketa:

Lurralde historiko bakoitzean, foru-aldundiko zerbitzuek gauzatuko dute plana, erlezain-elkarteekin batera. Unez une, liztorrak kontrolatzeko eta habiak suntsitzeko sortzen den informazioa eta berrikuntzak erlezainei igorriko zaizkie.

Finantziazioa:

Lurralde historiko bakoitzean erabakiko da liztor asiarrari aurre egiteko zer laguntza ezarriko diren.

Zehatzeko neurriak:

Ez dago horrelakorik.

1.H.– HONDAKINAK ARGIZARIAN**Garrantzia:**

Batzuetan, akarizidak edonola erabiltzean, modu arriskutsuan meta daitezke laminak eraikitzeo argizarian. Lamina horiek erabiliko dituzte erleek beren larbak hazteko eta beren elikagaia gordetzeko (eztia eta polena). Hainbat herrialdeetan oraindik orain egindako ikerketen arabera, plagizida asko batera erabiltzeak erleen heriotza-tasa handiarekin eta despulatzearekin zerikusia dauka.

Helburua:

EAEko erlategietan hondakin horien presentzia eta ondorioak minimizatzea.

Planaren garapena:

Argizari-laminak banatzeko ardura duten EAEko zentroetan pestiziden hondakinak kontrolatzeko plan bat ezaritzea proposatzen da. Erosten diren lamina-sorta berrien lagin bat aztertuko da, haren kalitatea bermatzeko.

Planaren kudeaketa:

Lurralde historiko bakoitzean, foru-aldundien zerbitzuek gauzatuko dute plana, erlezain-elkarteekin batera, eta erkidegoko edo estatuko erreferentziako laborategiaren diagnostikoak lagunduta.

Finantziazioa

Lurralde historiko bakoitzean erabakiko da zer laguntza ezarriko diren argizarian pestizidak detektatzeko.

Zehatzeko neurriak:

Ez dago horrelakorik.

2.– A ZERRENDAN DAUDEN GAIXOTASUNEN AGERRALDIAK AKTIBOKI ZAINTEA

Euskal Autonomia Erkidegoko erlategiak erleen ekoizpenari eragiten dien plaga berrietatik aske egon daitezen zaintza-lanak egitea da Planaren zati honen helburua. Plaga horiek, hain zuren Tropilaelaps sp. akaroa eta Aethina tumida kakalardoa dira.

2.A.– TROPILAEAPSOSIA

Garrantzia:

Tropilaelapsosia ez dago ofizialki diagnostikatuta Europar Batasunean; horregatik, gaixotasun hori sartzea eragozteko kontrol-neurriak areagotu egin behar dira. Asiako herrialdeetako erlategietan identifikatutako *Tropilaelaps* spp. motako akaroek eragiten duten gaixotasuna da, eta nahitaez jakinarazi behar da gaixotasun hori dagoela. Erleen larbekin elikatzen da, eta hil egiten ditu. Akaro emeak erlazuloetan sartzen dira (nahiago ditu erlamandoen gelaxkak, Varroa akaroak bezala), horietan arrautzak jartzen dituzte, eta arrautzetatik akaro berriak sortzen dira. Larbengan eragiten dituzten aldaketak Varroak eragiten dituenaren antzekoak dira, eta jaiotzera heltzen diren erleek sabelalde laburtuta izaten dute, hegoak atrofiatuta eta beste malformazio anatomiko batzuk ere bai.

Helburua:

Euskal Autonomia Erkidegoko erlategiak Tropilaelapsosiatik aske edukitzea.

Planaren garapena eta kudeaketa:

Akaro hori antzemateko erabiltzen den metodologia Varroa antzemateko erabiltzen den bera da. Bi akaro horiek morfologian eta tamainan bereizten dira.

Erleen gaixotasunak aktiboki zaintzean eta Varroaren tratamenduen eraginkortasun-kontrolak egitean erlezaintzako teknikariek Tropilaelaps sp. agertu dela susmatzen badute, dagokion lurralde historikoko abeltzaintza-zerbitzuari jakinaraziko diote. Zerbitzu horrek honako ekintza hauek egingo ditu: erlategia geldiarazi; errolatu; transhumantzia debekatu; epidemiologia-inkestak eta azterketa klinikoak eta farmakologikoak egin; laginak hartu; eta erlategi susmagarriaren inguruan 3-10 km-ko eremuan dauden erlategien kopurua eta errola zenbatetsi.

Orobat, biosegurtasun-arauen gaineko informazioa emango dio erlezainari. Neurri horiek mantendu egingo dira, erreferentziako laborategiak emaitza negatiboa dela jakinarazi arte.

Foku bat dagoela egiaztatuz gero, lehenbizi EAEko erreferentziako laborategiak eta ondoren erreferentziako laborategi nazionalak txosten bana egingo dute, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministeriora bidaltzeko, 617/2007 EDaren II. eranskinean ezartzen den bezala; errege-dekretu horren bidez, animalien agertuz gero nahitaez jakinarazi beharreko gaixotasunen zerrenda ezartzen da.

Erlezainari gaixotasunaren berri eman ondoren, gaixotasuna errotik kentzeko neurriak ezarri beharko dira, eta, babesteko, zaintzeko eta segurtasuna mantentzeko eremuak finkatu.

Zaintza-plana gauzatzeko, lurralde historiko bakoitzean lankidetzan arituko dira foru-aldundiak eta erlezain-elkar-teak, EAEko erreferentziako laborategiaren laguntzaz.

Finantziak:

Lurralde historiko bakoitzean erabakiko da zer laguntza ezarriko diren Tropilaelapsosia detektatzeko.

Zehatzeko neurriak:

Ez dago horrelakorik.

2.B.– AETHINOSIA

Garrantzia:

Aethinosis ez dago ofizialki diagnostikatuta Europar Batasunean; horregatik, gaixotasun hori sartzea eragozteko kontrol-neurriak areagotu egin behar dira. Gaixotasun hori agertzen denean ere nahitaez jakinarazi behar da. Herrialde batean sartzeko arriskueta bat inportazioekin sortzen da. Gaixotasuna kakalardoaren hegaldiaren

bidez zabaltzen da, eta trantsumantziak erraztu egiten du barreiatzea. *A. tumida* hegan sartzen da zulotik, eta estalketaren ondoren emeek arrautzak jartzen dituzte. Larba bilakatzen dira 10-14 egunean, eztiz eta polenez elikatzen dira, eta kalte larriak eragiten dituzte erlauntzean.

Helburua:

Euskal Autonomia Erkidegoko erlategiak *Aethina tumida*tik aske edukitzea.

Planaren garapena eta kudeaketa:

Aethina sp. kakalardoa dagoela susmatuz gero (larbak *Galleria mellonella* argizari-sitsaren antzekoak dira), dagokion lurralde historikoko abeltzaintza-zerbitzuari jakinaraziko zaio, eta hark honako ekintza hauek egingo ditu: erlategia geldiarazi; erroldatu; transhumantzia debekatu; epidemiologia-inkestak eta azterketa klinikoak eta farmakologikoak egin; laginak hartu; eta erlategi susmagarriaren inguruan 3-10 km-ko eremuan dauden erlategien kopurua eta errolda zenbatetsi. Gainera, biosegurtasun-arauen gaineko informazioa emango dio erlezainari. Neurri horiek mantendu egingo dira, erreferentziako laborategiak emaitza negatiboa dela jakinarazi arte.

Foku bat dagoela egiaztatuz gero, lehenbizi EAEko erreferentziako laborategiak eta ondoren erreferentziako laborategi nazionalak txosten bana egingo dute, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministeriora bidaltzeko, 617/2007 EDaren II. eranskinean ezartzen den bezala; errege-dekretu horren bidez, animalien agertuz gero nahitaez jakinarazi beharreko gaixotasunen zerrenda ezartzen da.

Erlezainari gaixotasunaren berri eman ondoren, gaixotasuna errotik kentzeko neurriak ezarri beharko dira, eta, babesteko, zaintzeko eta segurtasuna mantentzeko eremuak finkatu.

Zaintza gauzatzeko, lurralde historiko bakoitzean lankidetzan arituko dira foru-aldundiak eta erlezain-elkarteak, EAEko erreferentziako laborategiaren laguntzaz.

Finantziaketa:

Lurralde historiko bakoitzean erabakiko da zer laguntza ezarriko diren *Aethina tumida* detektatzeko.

Zehatzeko neurriak:

Ez dago horrelakorik.

3.– EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERLEEI ERAGITEN DIETEN GAIXOTASUNAK ETA IZURRIAK AKTIBOKI ZAINTEA

Xedea:

Zaintza aktiboaren xedea hauek dira: erlauntzen osasun-egoera ebaluatzea, gaixotasunen iraupenean aldaketak antzematea eta aldaketa horiek produktibitatearekin eta erlategian eragindako kalteekin erlazionatzea.

Zehazki, hauek dira asmoak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan umesabiari eta erle helduei eragiten dieten gaixotasunak monitorizatzea eta iraupenaren bilakaera aztertzea.
- Varroari aurre egiteko tratamenduen eraginkortasuna ebaluatzea.
- Erlategietan sartzen diren izurri berriak aktiboki zaintzea (*Aethina tumida* eta *Tropilaelaps* sp).

Planaren garapena:

Erlategiak hautatzea eta erleen laginak hartzea

Epidemiologia-unitatetzat erlategia hartuko da. Erlategiak urtero hautatuko dira lurralde historiko bakoitzean, auzaz eta modu zuzenduan, eta, gehienez, 10 erlategi izango dira lurralde historiko bakoitzeko.

Erlategiak aukeratuta, horietako bakoitzean aztertuko diren erlauntzen kopurua lurralde historikoan erroldatuta dauden erlauntzen arabera izango da, eta gehienez 10 erlauntz aukeratuko dira erlategi bakoitzean.

Bisitak egitea, laginak hartzea, laborategietako analisiak eta kasuen segimendua

Hautatutako erlategi bakoitzera urtean 3 bisita egin beharko dira.

- Lehenengo bisita udaren amaieran edo udazkenaren hasieran egingo da, betiere Varroaren aurkako tratamendua aplikatu aurretik, parasitazio-portzentajeak eta intentsitatea ezagutzeko.
- Bigarren bisita udazkeneko hiletan egingo da, *Varroaren* tratamenduaren ondoren, aukeratutako tratamenduen eraginkortasuna egiaztatzeko. Erleak geldialdian dauden garaiaren hasieran egingo da, beste patologia batzuk antzemateko aukera handiena dagoen aldia delako.
- Hirugarren bisita neguaren amaieran egingo da, neguko hilkortasuna baloratuko da eta arrazoia zein izan den aztertu.

Lehen bisitan, epidemiologia-inkesta bat egingo da, eta hor bilduko dira erlezaintzako praktiken inguruko datuak, erlauntzen kokalekua eta ingurumenaren arloko informazioa. Horretaz gain, erregistratu egingo dira kolonia bizien eta osasuntsuen kopurua, azken tratamenduaren data eta Varroari aurre egiteko erabilitako produktua. Erlezaintzako praktiken gaineko oinarritzko informazioa ere jasoko da (transhumantzia, elikadura artifizia, erlekumeak, erreginak berritzea, etab.).

Aukeratutako erlauntzen barruan dauden erle bizien laginak hartuko dira Varroa, Tropilaelapsa eta biosia aztertzeko. Gaixotasunaren sintomak badaude (hegoetan malformazioak, dardarak, beherakoa, etab. dituzten erleak) lagin bat hartuko da aparteko ontzi batean, han dagoela susmatzen den patogenoa aztertzeko. Aldi berean, umesabiaren itxura aztertuko da, eta zenbait koadro aterako dira. Umesabia sakabanatuta badago, edo zartatutako operkuluak ikusten badira, edo larben edukia edo/eta kolorazioa ezohikoa bada, lagin bat hartuko da umesabiaren abaraskatik, 5 x 5 cm-koa gutxi gorabehera, eta paperezko edo kartoizko bilgarri batean bilduko da, behar bezala identifikatuta, laborategira bidaltzeko.

Beste patologia batzuk ageri diren ere erregistratuko da: adibidez, txita igeltsatua (*Ascosphera apis*).

Erlategian *Vespa velutinarik* dagoen eta eraso zenbaterainokoa den ere baloratuko da.

Erlategiak ikuskatzean, *Galleria mellonella* argizari-sitsaren edozein zantzu erregistratu egingo da. Sitsa aurkituz gero, zenbait larba hartuko dira aparteko poto batean, identifikatzeko eta *Aethina tumida* kakalardoaren larbak ez direla bermatzeko.

Hartutako lagin guztiak erlauntzaren zenbakiarekin identifikatuko dira, laborategira bidali aurretik. Laginak erreferentziako laborategira bidali ondoren, dagozkien laborategi-analisiak egingo dira, estatuko edo/eta Europako erreferentziako laborategiek gomendatzen dituzten protokolo ofizialak betez.

Bigarren bisita Varroaren tratamendua amaitu ondoren egingo da. Lehen bisitan aztertutako erlauntz berberak ikuskatuko dira, eta erle bizien lagin bat hartuko da, tratamenduaren ondoren Varroa-parasitazioaren ehunekoa zenbatekoa den ebaluatzeko. Erlauntzetan gaixotasun-sintomak agertzen badira, erleen edo/eta umesabiaren laginak hartuko dira, aparteko ontzietan. Erleak eta umesabia aztertu egingo dira, erlauntzean lehen bisitatik egon den bilakaera baloratzeko.

Hirugarren bisita negu amaieran egingo da, eta laginak hartuko dira, baldin eta ikuskapenean aldaketa motaren bat ikusten bada. Kasu horretan, erlauntz susmagarrietako erleen edo/eta umesabiaren laginak hartuko dira, aparteko ontzietan.

Hiru bisita egitearen helburua neguko hilkortasuna eta neguan erlauntzetan izaten den ahultasuna baloratzea da.

Gaixotasun bakoitzari aurre egiteko hartutako kontrol-neurrien eraginkortasuna ere ebaluatu egingo da, eta ebaluatu egingo da, halaber, erlategian gerora ere segimenduak egin behar diren.

Planaren kudeaketa:

Erategietako ikuskapena erlezaintzan adituak diren langileek egingo dute. Zaintza-programa foru-aldundiek antolatatu eta koordinatuko dute, erlezain-elkarteen laguntzaz.

Laborategietako analisiak Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentziako laborategian egingo dira.

Finantziazioa:

Foru-aldundi bakoitzak bere finantzaketa-plana ezarriko du.

5.– Erleen Osasun Planaren urteko balorazioa

Erlezaintzako teknikari-taldeko kideak bilduko dira honako hauek baloratzeko: emaitza orokorrak, gaixotasunen eragina, Varroari aurre egiteko aplikatutako tratamenduen eraginkortasuna eta gaixotasun bakoitzean izandako jokabide higieniko-sanitarioen emaitzak.

Agindu honen xede den EOP plan dinamikoa izango da. Beharrezko aldaketak eta eguneraketak egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoan erleen osasunean aurrera egiteko, gaixotasunak eta izurriak gutxieneko mailetan mantentzeko eta erlezainek produktibitate handiena izatea ahalbidetzeko.